



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FARMAZIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE FARMACIA

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



ENOLOGIA BERRITZAILEA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea oso dinamikoa da azkenaldian. Beste kontinente batzuetan, herrialde ekoizle berriak agertzen ari dira, eta, horrez gainera, mahastizaintzako eta ardogintzako teknika berriak daude, baita produktua merkaturatzeko eta marketina egiteko estrategia berritzaileak ere. Horren guztiaren ondorioz, zalantzan jarri da zenbait lurralde ekoizle eta markak historikoki lortua zuten estatusa. Egoera horri aurre egiteko, beharrezkoa da maila goreneko profesional espezializatuak izatea, ikuspegi orokorra dutenak ardo ekoizpenaren negozioaren arlo guztietan eta upategien kudeaketa komertzialean.

Enologia Berritzailea Unibertsitate Arteko Masterra mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko profesionalen

trebakuntzara bideratuta dago. Ikasleek mundu osoko merkatuak eta estrategia komertzialak ezagutuko dituzte, eta gai izango dira zentzumenen bidezko analisirako jardunbide egokiak aplikatzeko. Modu horretan, oso-osorik definitu ahalko dute produktu sorta bat, merkatuaren eskaerak kontuan hartuta, eta, era berean, produktua modu berritzailean definitzen eta kudeatzen lagunduko dute, mahastiaren aukerei eta praktika enologikoei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Betiere, berrikuntza sustatuta, bai alderdi teknikoan eta prozeduretan, bai alderdi komertzialean, erakundeen arrakasta bermatze aldera. Programaren ikuspegi diziplinartekoak, gainera, beste master batzuetatik bereizten du, batez ere ardoaren elaborazioan soilik oinarrituta daudenetatik.

SARBIDEA

Enologia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Biologia Zientziak, Kimika Zientziak, Ingeniaritza Agronomikoa, Elikagai prozesu eta produktuen berrikuntza, Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritza, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Marketin Diziplinarteko ikuspegia izanik, Masterra interesgarria izan daiteke aurretiko prestakuntza oso desberdina duten ikasleentzat ere.

Batzorde Akademikoak baimenduko du sarbidea pareko beste gradu edo titulazio batzuetatik.

IRTEERA PROFESIONALAK

Maila goreneko profesional espezializatuak, ikuspegi orokorra dutenak ardo ekoizpenaren negozioaren arlo guztietan eta upategien kudeaketa komertzialean.

Upategiko jardueren koordinatzaileak, egunetik egunera aldakorragoa eta konplexuagoa den merkaturatze berritzaileko estrategia finkatzeko gaitasuna dutenak.

Prestakuntza integrala jasoko duzu unibertsitate arteko master baten bidez (UPV/EHU-UPNA), presentziala, ofiziala, doktoregorako sarbidearekin eta, enologia eta ekonomiako graduatuentzat, titulu bikoitza izateko aukera Bordeleko Unibertsitatean.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

UPV/EHU: Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).

UPNA: Escuela Técnica Superior de Ingenieros Agrónomos (Iruña)

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania.

Gutxi gorabeherako prezioa:

2.200-2.400 euro.

Egutegia:

Urritik ekainera, arratsaldean.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak <hr/> 27 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak <hr/> 12 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak <hr/> 21 ECTS kreditu	Guztira <hr/> 60 ECTS kreditu
--	--	---	----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezko gaiak:

- Mahastiaren zaintza eta kudeaketa
- Ardogintzaren kudeaketa eta plangintza estrategikoa
- Esperimendu-diseinua eta zentzumen-datuaren prozesamendu estatistikoa
- Ardo dastaketaren oinarri metodologikoak eta ekoizpen ereduaren zentzumenen bidezko sailkapena
- Mahastizaintzaren eragina ardoaren zentzumen ezaugarrietan
- Trebatutako panelak eta kontsumitzaileen lehentasunen azterketa
- Zentzumenei lotutako eraginak enologian
- Merkataritza zuzendaritza, marketin aurreratua eta beren integrazioa kontsumitzaileen lehentasunekin

Hautazko gaiak:

- Ekonomia eta egitura-Mahastizaintzaren eta ardogintzaren legeria eta antolamendua
- Analiari eta kontrol kimiko enologikoa
- Mahastizaintzaren joera berriak
- Enologiaren joera berriak
- Ardoaren nazioarteko merkataritza
- Mahastietako praktikak eta ekoizpenaren adierazleak

Heziketa-osagarriak:

- Mahatsaren ekoizpenaren eta konposaketaren oinarri fisiologikoak eta ingurumenekoak
- Enologiaren oinarriak
- Ez-finantzarienezko mahastizaintza- eta ardogintza-enpresetako oinarriko finantzak
- Zentzumen-analisiaren oinarriak
- **Practicum-a** (Praktikak upategian)
- **Master amaierako lana**

HARREMANETARAKO

Masterreko koordinatzailea eta

UPV/EHUko arduraduna:

Francisco José Pérez Elortondo

Tel: 945013075

Posta elektronikoa:

franciscojose.perez@ehu.eus

UPNAko arduraduna:

Luis Gonzaga Santesteban García

Tel: 948169718

Posta elektronikoa:

gonzaga.santesteban@unavarra.es

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIGERTUNA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS



ENOLOGI BERRITZAILEA
MASTERRA

www.ehu.es/eu/web/master/enologia-berritzailea-masterra